



❖ TAILERRAK Haurrentzat tailerrak, gaur

Gaur arratsaldeko 16:30etatik 18:30etara tailerrak egingo dira udaletxeko arkupeetan, 6-11 urte bitarteko haurrentzat. ||

❖ KANTAITA Bilera gaur

San Joanetako Kantaitan parte hartzen dutenek bilera dute gaur, 19:00etan Biterin. ||

❖ BERRIAK

Errege Kabalgatako erropa banatuko da bihar

Errege Kabalgatan antortxero bezala parte hartuko duten haurrek Biteritik pasa behar dute bihar, 16:00etan, erropa jasotzeko. ||

❖ PORTU AUZOA

Malabarismo tailerra gaur, Gabon egitarauan

Portuko auzo elkarteak antolatuta, malabarismo tailerra izango da gaur, Xabi Larrea-ren eskutik, 17:30etan lokalean. Datorren asterako ekintza gehiago prestatu dituzte. ||

❖ SAN JOAN KONPARTSA 0129, sariduna

Santo Tomas egunean San Joan Konpartsak egindako zozketako errifa sariduna 0129 zenbakia da. Irabazleak abenduaren 31 baino lehen deitu behar du telefono honetara: 695 753 138. ||

❖ ITURRITXO ELKARTEA Haurtxokoak, gaur eta bihar

Urtero bezala, Gabonetako Haurtxokoak egingo dira gaur eta bihar Iturritxo elkartearen. Goizeko 10:30etatik 13:00etara bitartean egingo dira ekintzak, eta auzoko haur guztiak gonbidatu nahi dituzte parte hartzera. ||

BERTSOLATA - SOZIEDADEAK BERTSOTAN

Bederatzi bertsolari lehian bihar

Aralar tabernan erosi daitezke sarrerak, 18 eurotan, biharko 'Soziedadeak bertsotan' bertso-afarirako. Larunbatean berriz, 'Historiaren hari zahar horri...' emanaldia estreinatuko da, 19:30etan Biterin.

SOZIEDADEAK Bertsotan saioak arrakasta handia izan zuen lehengo urtean, eta hori horrela, aurten, bigarren edizioa antolatu da. Bihar, 20:30etatik aurrera, bederatzi bertsolariren arteko lehia bizia izango da Sagastialde Elkar-tean, afari eder baten bueltan.

9 bertsolari; 9 elkarte

Lehian 9 bertsolari ariko dira, eta bertsolari bakoitza Hernaniko soziedade baten ordezkaria izango da.

Unai Gaztelumendi Txan-xangorri elkartearen izenean ariko da; Iñaki Zelaia, Peña Otañorenean; Eli Pagola, Santa Barbararenean; Aritz Zerain, Urmiarenean; Amaia Otxotorena, Sagastialderenean; Xabier Legarreta, Arano, San Rokerenean; Oier Iurramendi, Karobirenean; eta Iñigo Azpiroz, Xalapartaren izenean.

Aurkezle lanetan Arnaitz Lasarte ariko da, eta epaileak izango dira Joxeanjel Oiarzabal eta Mikel Iturbe.



Beñat Gaztelumendi, Karobi elkartearen izenean, izan zen lehengo urteko txapelduna.

Sarrerak lortzeko aukera

Soziedadeak Bertsotan saiorako sarrerak gelditzen dira oraindik, 18 eurotan, Aralar tabernan.

Afaria ere prezio berean sartuta dago.

Bertso musikatuaren estreinaldia, larunbatean

Bertsolatako egitarauaren barruan egingo den hurrengo saioa, larunbatekoa izango da. Arratsaldeko 19:30etatik aurrera, *Historiaren hari*

zahar horri... bertso musikatuaren saioa estreinatuko da.

Bertso zahar eta berriak kantatuko ditu Eñaut Agirrek, eta doinu zahar eta berriak joko dituzte Imanol Kamiok eta Aitor Atxegak. ||

ERRUGBIA - GIPUZKOAKO KIROL KAZETARIEN ELKARTEAREN SARIA

Eta beste sari bat, mailaz igotzeagatik

Hernaniko Errugbi taldea sarituko du gaur, besteak beste, Gipuzkoako Kirol Kazetariaren Elkarteak. Bestalde, jokalaria hernaniarrak Euskadiko eta Espainiako Selektzioek deitu dituzte, jokatzeko.

GAUR, 21:00etatik aurrera, XXIV. Kirolaren Gala egingo da Donostiako Silken Amara-Plaza hotelean. 2012ko kirolari gipuzkoar onena aukeratuko dute bertan, eta beste sari batzuk ere emango dituzte. Tartean, Hernani CRE taldea sarituko dute, urte honetan Oho-rezko Mailara igotzeagatik.

Kirolari onena berriz, Gipuzkoako Kirol Kazetariaren Elkartearen eta hainbat kirolari, patrozinatzaile eta kluberen artean aukeratuko da.

Hernaniko jokalariaik Selektzioekin

Euskadiko eta Espainiako Selektzioek Hernaniko hain-

bat jokalaria deitu dituzte, abenduan eta urtarrilean egingo dituzten kontzentrazioetan parte hartzeko. Besteak beste, Beñat Iradi, Mattin Mujika, Mikel Paino, Jon Ander Puertas eta Peio Perez kadeteak; Eneko Noriega, Xabat Erroizenea, Mikel Perez, Mikel Otxoto-

rena, Mikel Zabaleta, Jokin Uzkudun eta Iñaki Leonet jubenilak; Nora Solano, Maialen Aranegi, Marta Tejero, Julia Canellas, Leire Rodriguez, Naroa Jaka eta Olaia Auzmendi senior emakumezkoak; eta Oier eta Iraitz Garmendia eta Igor Genua senior gizonetzkoak. ||

TRIPA BETE NAHI?

TRIPA

taberna

tripontzi

PINTXOKA BAZIOKER
ENTZALDEAN
PLATER, BOMBINATZER
ZATOK DASTATZERAK!

Kardaberaz kalea, 11 • HERNANI • 943 555 724

ezkati

ileapaindegia

Iturrog. 4
Hernani
943 00 00 50
Hartu ordua

ITXASPE

Arandegia

Antziola 5 - Tel.: 943 330 365 - Mob.: 653 741 097

TELEFONOAK ● **Taxiak:** 943 550093 ● **Udaltzaingoa:** 092 ● **DYA:** 943 464622
 ● **Autobusak:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
 ● **Anbulatorioa:** 943 006666 - 943 203020 ● **Jokalari anonimoak:** 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103
 + **FARMAZIAK** ● **Egumez:** **Bulnes** Etxeberri 1 - 943 557738 ● **Gauzez:** **Etxebeste** Elkano 9 - 943 552087

EGURALDIA
GAUR Hego-mendebaldeko haizeak tenperaturak igoko ditu. Zerua lainotuta egongo da, baina ez da euririk espero. Min.8°/Max.15°
BIHAR Hegoaldeko haizea dela eta tenperaturak gora egingo du berriro. Ez da ia lainorik egongo, eta beraz, giro eguzkitsua nagusituko da. Min.11°/Max.17° (euskaime)

OZENKI ABESBATZA



Ozenki abesbatzak ez du deskantsatzeko tarterik hartu Gabon hauetan.

Bi kontzertu emango ditu Ozenkik, gaur eta bihar

Atsedetik gabe, jo eta su lanean ari da Ozenki abesbatza Gabon hauetan. Gaur kontzertua emango du, 19:30etan Kixkalen; bihar berriz, Belauntzan.

GAUR Kixkal tabernan emango du kontzertua Ozenki abesbatzak, 19:30etatik aurrera. Bihar berriz, Belauntzako aste kulturalaren barruan, bertako elizan kantatuko du 18:30etan. Deskantsatzeko denborarik ez du hartu Ozenkik, Gabon hauetan.

Kixkalen, akordeoilari eta trikitilariak lagun
 Gaur bertan, arratsaldeko 19:30etan hasita, kontzertua emango du Ozenki abesbatzak Kixkal tabernan.

Imanol Kamio zuzendari lanetan ariko da, eta Doinu Zale Musika Eskolako ikasleak izango dituzte lagun. Markel Oiarzabal eta Irati Jauregik akordeoia joko dute, eta Uxue Amonarraiz eta Maider Senper berriz, trikitixarekin ariko dira.

Bihar Belauntzan
 Bihar beste kontzertu bat emango du Ozenki abesbatzak, kasu honetan, Belauntzako elizan, arratsaldeko 18:30etatik aurrera. Bertako aste kulturalaren barruan

antolatutako kontzertua izango da hau.

Atsedetik gabe, lanean
 Gabon hauetan makina bat kontzertu ematen ari da Ozenki abesbatza.

Kantuzek San Joan Bataiatzailea elizan antolatzen duen Gabon kanten jaialdian parte hartzen hasi zuen Ozenkik Gabonetako egitaraua.

Pasa den asteburuan berriz, Musika Bandarekin batera eman zuen kontzertua Ozenkik, Milagrosan. ||

DOBERA EUSKERA ELKARTEA - IKASTAROA

Plaza batzuk libre, haur etorkinak euskerara hurbiltzeko ikastaroan

Urtxintxa eskolak emango du ikastaroa, urtarrilaren 12, 19 eta 26an, 4 orduko saiotan. Plazak gelditzen dira, eta Doberan eman daiteke izena.

HAUR etorkinak euskerara hurbiltzeko tresnak eta programak izena du ikastaroak. Helburua da, haur etorkinak euskerara hurbiltzen laguntzeko tresnak eta estrategiak ikastea.

Ikastaroa aisialdiko hezitzaileei eta irakasleei dago zuzendua bereziki, baina interesa duen edonork hartu dezake parte.

Saioak, 3 larunbatetan
 Ikastaroa 4 orduko 2 saiotan emango da, urtarrilaren 12, 19 eta 26an, hain zuzen.

Talde bakoitzean 8 eta 20 lagun artean ariko dira, eta ikastaroa partehartzailea eta aktiboa izango da. Besteak beste, honakoak landuko dira: kultur aniztasuna, euskera eta jolasa, motibazio estrategiak, haur etorkinekin

euskera sustatzeko programen planifikazioa eta tresnak.

Doberako bazkideentzat merkeago
 Izen-emateak 45 euro balio du; Doberako bazkideentzako, prezioa 40 eurokoa da. Izena emateko: 943 33 27 99 - 688 660 707 edo dobera@dobera.com. ||

❖ BIDE MOZKETA

Errepidea moztuta egongo da gaur, egun osoan, Itxasburu parean

Egin beharreko obra batzuk direla eta, gaur egun osoan errepidea moztuta egongo da Itxasburu baserri parean. Aurrerago joan behar duten bizilagunek Lastaolatik edo Urrietatik barrena egin beharko dute joan-etoria. Obrak bihar hasi eta bukatzea espero dute. ||

❖ GAZTE ZUKGUA ASTEA

Aldaketak egin dira egitarauan

Atzo hasi zen Gazte Zukgua astea Hernanin, eta aldaketa bat egin da gaurko eta biharko egitarauan. Gaur arratsaldean egitekoa zen Tonbola Erotikoa bihar egingo da, 23:00etan, gainontzeko ekintza guztiekin. Gaur berriz, 19:00etan Oretetara joateko deia luzatu dute, bertako auziperatuei egingo zaien ekitaldian parte hartzeko. ||

◆ ARRAUNA

Batel estropada Elorrabin, larunbatean

Arraun denboraldiari hasiera emateko, batel estropada izango da larunbatean, 11:00etan hasita, Elorrabin. Tartean izango dira infantil eta kadete mailako neska-mutil hernaniarrak. Denboraldiari hasiera emateko Gipuzkoako Federazioak antolatzen duen saioa da hau. ||

Euskal produktuen otarraren irabazlea, 6.058

Arraun elkarteak euskal produktuekin osatutako otarra zozketatu du, eta irabazlea da, 6.058 zenbakia. Saria jasotzeko, deitu telefono honetara: 669 270 481. ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† **SABINA ALBERRO ETXEBERRIA**
 ANDREA
 Herenegun hil zen, 60 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta
 - Goian Bego -
 Senarra: Carlos Erostarbe; seme-alabak: Carlos eta Rosa Maria Valhondo eta Edorta; bilobak: Aimar eta Asier; gurasoak: Eduardo (†) eta Salustiana (†); anaiak: Eduardo (†) eta Jose Mari; ezkon anai-arrebak, ilobak, osaba-izebak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.
 Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela **GAUR, OSTEGUNA**, arratsaldeko **ZAZPIETA, SAN JOAN BATAIATZAILEAREN** parrokian elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.
Hernanin, 2012ko abenduaren 27an
 OHARRAK: Gorputza VASCONGADA EHORZKETA TANATORIOAN egongo da goizeko 10:15ak arte.

JOSE ANTONIO ZAPATA SAENZ
LEOKA GURASOEN ELKARTEA AMPA - ELIZATXO
Hernanin, 2012ko abenduaren 27an

❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

Atikoa salgai Kale Nagusian. 176.000 €. Gazteentzat aproposa. 48 m2 erabilgarri. Bizitzera sartzeko. Deitu: 652 740 831. Posta: lursaski@gmail.com
ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.
Iniigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berbebrala, reflexologia, auriculoterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)